

artikulu nabarmenak
artículos destacados

2012



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

maiatza



Violencia en las relaciones entre adolescentes.

Dossier honetan, nerabeen arteko hainbat indarkeria-motari buruzko artikuluak biltzen dira: lehenengoa, biktimizazioaren eta eskola-indarkeriaren arteko harremanaren azterketa bat, bigarrena, gizarte-ospe ez konformistaren eta nerabeen indarkeriaren azterketa luze-zabala genero-ikuspegitik eta hirugarrena, parekoen arteko indarkeria eskolan, ikasle ospetsu eta baztertuen eta nerabeen arteko erasoak sakelakoaren eta Interneten bidez. *Intervención psicosocial = Psychosocial Intervention*, 21. lib., 1. zk., 2012ko apirila, 53–101. or.



Ahn, Namke; Mochón Morcillo, Francisco; Juan, Rebeca de. La felicidad de los jóvenes.

Lan honi esker, Espainiako gazteen poztasun-mailaren maila subjektiboaren berariazko dimentsioak eta dimentsio objektiboak ezagutzera eman nahi dira, bai eta poztasunean eragiten duten faktoreak zein diren ere. Lortutako emaitzek aditzera ematen dutenez, gazte ezkonduak zoriontsuagoak dira ezkongabeak edo bikotekidearekin bizi direnak baino. Ikasleak langileak baino zoriontsuagoak dira eta, langileen artean, zorigaitzekoagoak dira aldi baterako kontratua dutenak. Zorionak errentarekin batera egiten du gora. Espainiako gizarte osoan ez bezala, badirudi erlijioak ez duela eraginik gazteen bizitzarekiko poztasun-mailan. Itxaropen positiboek ere gazteen zoriona areagotzen dute, bain ez espainiar guztiengan beste. Euren kabuz bizi diren gazteak zoriontsuagoak dira gurasoekin bizi direnak baino. *Papers*, 97. lib., 2. zk., 2012ko apirila-ekaina, 407–430. or.



González de la Fuente, Iñigo. Juventud y diversidad cultural. Algunos elementos para un análisis socioantropológico de la transición escuela-trabajo.

Espainian bizi diren gazteek -kultura nagusikoek nahiz etnikoki desberdinak direnek- hezkuntza-sistematik lan-mundura egiten duten trantsizioa aztertzeke hainbat elementu eskaintzen ditu saiakera honek. Hipotesi nagusia honetan datza: gaztarotik helduarorako trantsizio-prozesuek gizarte-desberdintasunak sendotzen eta errotzen dituztela, eta horrek gizarteak gero eta gehiago zatituz eta muturreratu doazela. Horren haritik, arreta berezia eskaintzen zaio aniztasun etnikoaren eta gizarte-desberdintasunaren arteko loturari, gazteek eskolan, lanean, familian eta etxebizitzan izandako lorpenetan dauden aldeak aztertuta.

Revista de ciencias de la educación, 229. zk., 2012ko urtarrila-martxoa, 39-62. or.